

PROTOKOLOA

MASKARAREN ERABILERA

Kirol-jarduera orotan, nahitaez erabili beharko da maskara. Hauek dira salbuespenak: eremu naturaletan, hirigune periferikoetan (oinezkorik gabe), igerilekuetan, lehiaketa profesionalean edo erdi-profesionalean ari diren taldeen entrenamenduetan, lehiaketetan eta kanpoan egiten den jarduera fisiko biziko aparteko uneetan.

SAIOAK, ENTRENAMENDUAK ETA LEHIAKETAK

Honako arau hauen arabera garatu ahal izango da kirol-jarduera:

– Federatu gabeko kirol-jarduera fisikoa bakarka edo taldeka egin ahal izango da aire zabalean, kontaktu fisikorik gabe, eta aldi berean 6 laguneko taldeetan, gehienez ere.

– Lehiaketa profesionalean eta federatuan ari diren taldeen entrenamenduak eta kirol-lehiaketak egin ahal izango dira. Federazio bakoitzari, bere eremuan, eta, kasua bada, lehiaketa bakoitzaren ardura duten erakundeei dagokie prebentzio-neurriak eta -protokoloak zorrotz betetzen direla zaintzea.

– Eskola-kiroleko entrenamenduak egin ahal izango dira, eta gehienez ere sei laguneko taldeetan antolatuta. Taldea beti pertsona berek osatuko dute, eta ezingo dira aldagelak erabili.

– Entrenamenduetan eta taldeko kirolak egin aurreko eta ondorengo uneetan, pertsonen arteko 1,5 metroko segurtasun-distantzia, sei laguneko taldeak eta maskara erabiltzeko oinarritzko prebentzio-neurriak gordeko dira. Kontaktu kopurua murrizte aldera, saioak edo entrenamenduak, ahalik eta jende gutxienarekin egingo dira.

Ahal den neurrian, materiala partekatzea sahiestuko da. Kirolari bakoitzak bere ur botila eraman beharko du.

Botikiñeko materiala erabiltzen denean, erabili duen pertsonak erabili eta botatzeko eskularruak jantziko ditu beti.

ALDAGELAK

Bai entrenamentu eta bai lehiaketarako erabiltzen diren instalazioak udalarenak izaki, aldagelen erabilera frontoiko arduradun/kantxazain Santi Olabereren ardurapean egongo da, beti ere garbitasun eta seguratsun neurriak bermatzen badira.



LAGUNTZAILEAK EDO IKUSLEAK

Entrenamentu saioetan, instalazioetan ezingo da egon jardueran parte hartzen ari diren taldeetako kide ez den ikuslerik edo beste inor.

Kirol-espaziora honako hauek baino ezin izango dira sartu: kirolariak eta eskola-lizentzia duten edo dagokion jardueran ofizialki izena emanda dauden teknikariak;

Lehiaketa jardueren kasuan, epaileak, arbitroak eta antolatzaileak; kirol-erakundeetako osasunarduradunak eta eskolakiroleko arduradunak, eta udal erakundea izaki, udalak baimendutako aforoaren arabera ikusle kopurua izango da.

COVID-19ko KASUEN AURREAN JARDUTEKO PROZEDURA

Klubeko pilotari edo teknikari batek COVID-19arekin bateragarria izan daiketeen edozein sintoma sentitu orduko, bere etxean geratuko da eta berehala herriko anbulatoriora deituko du egoeraren berri emateko.

Jarraia, klubeko COVID 19aren inguruko komunikazio izendutako pertsonari jakinaraziko dio. (Itsaso Zubizarreta-ri)

Komunikazio izendatuko pertsona honek, Osakidetzako bilatatzaillei jakinaraziko die lehenbailehen edozein gertakari eta beharrezko informazio guztia; bere kontaktuak etabar....

Era berean, arduradun honek zuzendaritza@bepf.net helbidean eman beharko du egoeraren berri.

